

8. TESTUA: "ETA AITONA NON DAGO?"

-Mahaira!!!

Aitorrek bere aitoren oihua entzun du eta logelatik atera da.



Jangelara iristean lehengoa izan dela ikusi du: mahaia ipinita dago eta ez da ezer falta; baina INOR EZ DAGO MAHAIAN ESERITA, ezta aitona ere. Aitona beti izaten da lehena, baina ez dago mahaian ezta telebista ikusten ere. NON DAGO AITONA? Aitorrek bere bila joatea erabaki du.

Lehenengo sukaldera hurbildu da eta aitarekin topo egin du, eskuetan entsalada daramala.

-Aitona, aitonaren bila nabil. Badakizu non dagoen?

Aitor lehenengo bainugelara joan da; atea itxita dago eskuarekin bi aldiz deitu du.

-Tok, tok!!! - eta ozenki esan du:

-Aitona, hemen al zaude?

Baina ez du inork erantzun. Aitona ez dago bainugelan, beraz, berriro atea itxi eta etxean zehar bila jarraitu du.

Hurrengo atea ere, trastelekukoa, itxita dago. Aitorrek atea jo du.

-Tok, tok!, aitona, hemen zaude? - berriro galdetu du.

Ez dago erantzunik. Aitorrek atea ireki egin du eta ez dago inor. Orduan Aitor aitonaren logelara doa eta...

-Aitona, hemen al _____?

-HEMEN NAGO!

Bizkarretik esku batzuk eutsi diote eta altxatu egin dute. AITONA DA!

Aitor bere bila dabilelako hunkituta, aitonak besarkada bat eman dio eta esan dio:

-HEMENDIK AURRERA EGUNERO IZKUTATUKO NAIZ ZU NIRE BILA ETOR ZAITEZEN

ARIKETAK:

Nortzuk dira istorio honetako protagonistak?

Nor dago izkutatuta?

Nora doa lehenengo Aitor, aitonaren bila?

Eta gero, **nora** doa bila?

Non dago aitona?

Aitonak, **besarkada ala musua**, ematen dio Aitorri?

Zer esaten du aitonak azkenean?

Gustatu al zaizu istorioa? **Zergatik?**
